

A TESTUA

¿Qué horario tiene el Archivo General de Navarra?

La Sala de Consulta del AGN y la Sala de Lectura de la Biblioteca del AGN prestan servicio de apertura al público de lunes a viernes de 8:30 a 14:30 horas. A partir de las 14 horas no se sirve nueva documentación en las salas, y a partir de las 14:15 la documentación utilizada debe ser devuelta a los depósitos. Además, la parte del edificio de acceso libre (Sala de Exposiciones, patio y zaguán) abre de lunes a viernes de 9:00 a 15:00 horas.


¿Qué servicios presta el AGN a los ciudadanos?

El AGN presta el servicio de consulta presencial de la documentación que custodia en la Sala de Consulta y en la Sala de Lectura. Como complemento, el AGN dispone de un servicio de reprografía para facilitar a los ciudadanos las reproducciones que soliciten de los documentos consultados. Así mismo, el AGN ofrece un servicio de información y referencia (presencial y por correo electrónico) destinado a orientar a los ciudadanos e investigadores sobre el alcance de los fondos documentales que custodia y el uso de los instrumentos de descripción de los que dispone, remitiéndoles a otros archivos si es preciso.

Además, el AGN promueve la difusión del patrimonio documental de Navarra organizando o colaborando con otras instituciones en la celebración de exposiciones, actos y conferencias sobre temas relacionados con la historia, la cultura y el patrimonio, para lo que cuenta con un salón de actos y una sala de exposiciones.

¿Con qué equipamientos cuenta el AGN para prestar el servicio de consulta de documentos?

El AGN dispone de una Sala de Consulta equipada con 32 mesas individuales de trabajo y 8 puestos con equipos informáticos. Así mismo, cuenta con una Biblioteca, cuya Sala de Lectura está habilitada con 30 puestos individuales, puestos informáticos, lectores de microfilm, etc. Todas las mesas tienen toma eléctrica y además la Sala de Consulta dispone de red wifi. Ambas salas están atendidas permanentemente por responsables que prestan asistencia a los usuarios.



B testua

El artículo 21 de la Orden del Ministerio de Trabajo de 13 de octubre de 1967, por el que se establecen normas para la aplicación y desarrollo de la prestación por incapacidad laboral transitoria en el Régimen General de la Seguridad Social, determina la obligación de que las empresas notifiquen los accidentes de trabajo ocurridos a sus trabajadores, mediante la cumplimentación y tramitación del parte de accidente, cuyo modelo oficial fue aprobado por Resolución de la entonces Dirección General de Previsión de 22 de septiembre de 1969. Esta obligación se extiende, por Orden del Ministerio de Trabajo de 16 de mayo de 1970, en los mismos términos y condiciones, a las empresas que empleen trabajadores comprendidos en el campo de aplicación de cualquiera de los Regímenes Especiales de la Seguridad Social cuya acción protectora incluya los accidentes de trabajo.

La Orden de la Presidencia del Gobierno de 28 de mayo de 1974 delegaba las funciones del Instituto Nacional de Estadística, en cuanto a la elaboración de las estadísticas de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales, en la Secretaría General Técnica del Ministerio de Trabajo; funciones que, a partir de la reestructuración del Ministerio de Trabajo y Seguridad Social por Real Decreto 530/1985, de 8 de abril, han sido atribuidas, según lo establecido en el artículo 7.º de dicho Real Decreto, a la Dirección General de Informática y Estadística.

Consultadas las organizaciones sindicales y empresariales más representativas, las entidades gestoras y colaboradoras y el Instituto Nacional de Estadística, se ha considerado conveniente modificar la correspondiente estadística, para lo cual es necesario establecer nuevos modelos e instrucciones para la cumplimentación y tramitación de los mismos, con objeto de facilitar a las empresas la notificación de los accidentes, agilizar la tramitación que en esta materia corresponde a las entidades gestoras o colaboradoras, mejorar la significación de los datos estadísticos y, al mismo tiempo, racionalizar y reducir los costes en la elaboración de la estadística, además de posibilitar una mejor comparabilidad internacional de las cifras.

D testua


EBAZPENA, Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez aurrekontua finkatzen baita, eta behin-behinekoz ezartzen 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planaren kargura egin daitekeen gehieneko ekarpen ekonomikoa, Tuterako Udalaren inbertsio honetarako: "Sareak berritzea Valle del Roncal, Ireneo, Placeta Rios eta El Puerto karriketan eta La Concordiako pasealekuko zati batean".

2009ko urriaren 5eko erabakiaren bidez onetsi zen 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Plana, eta haren barnean behin-behinekoz sarturik dago 230.149,20 euroko inbertsioa Tuterako Udalarendako, arestiko izenarekin eta "Toki programazioa" (Araubide orokorra) kapituluaren barnean.

2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen 16. artikuluko 2. puntuak ezartzen duenez, proiektuaren egokitasun teknikoa nahiz ekonomikoa eta bideragarritasun ekonomiko finantzarioa egiaztatu ondotik, zehaztuko da zein izanen den Inbertsioen Planaren kontura egin daitekeen gehieneko ekarpen ekonomikoa, foru lege beraren 12. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Artikulu horren 4. puntuaren arabera, modu horretan ezartzen diren ekarpenak behin-behinekoak izanen dira, kasuan kasuko kontratua adjudikatzen den arte, orduan zehaztuko baita ekarpena, adjudikazioan lortzen den beherapenaren arabera, halakorik gertatuz gero.

Urtarrilaren 19ko 5/2009 Foru Dekretuaren bidez aurreko paragrafoko foru legea garatzeko erregelamendua onesten da, eta foru dekretu horren 44. artikuluan ezartzen da zer dokumentazio aurkeztu behar den gastu konpromisoa onetsi aurretik. Artikulu horrek berak legera jotzen du dokumentazio orokorra aurkeztu behar den epeari dagokionez eta finkatzen du zein izanen diren inbertsioetarako epeak, planaren esparrua zabalduz gero behin eta berriz aipaturiko 16/2008 Foru Legearen 9.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren zerbitzuek, dokumentazioa aztertu ondoren, txosten teknikoa eta ekonomikoa egin dituzte, espedienteari gehitzeko. Txosten teknikoaren arabera, inbertsio guztiaren % 70,1579 da finantzarria (barne direla BEZ berreskuragarria eta hasierako aurreikuspenaren gaineko erregelamenduz kanpoko soberakina). Eta 16/2008 Foru Legearen 12. artikuluan oro har xedatutakoari jarraikiz, % 70,00 aplikatuko zaio laguntzaren xedeko oinarriari gehieneko ekarpen ekonomikoaren zenbatekoa zehazteko.



C TESTUA

H

Izeiak zazpi urte ditu eta idazten ikasten ari da. Dena muxinduta dabil aspaldi honetan ez duelako ulertzen zergatik idatzi behar duen H letra. Beste letra guztiek zerbait adierazten dute, hots bat «ateratzen» dute, baina H-k ez. Orduan, zertarako idatzi behar da? Ez da berriketa: bere protesta oso benazkoa eta sentitua da.

H zergatik idatzi behar den badakigu guk: halaxe agindua emana dagoelako; zekitenek eta zezaketenek halaxe erabaki zutelako noizbait. Berez, ondo sentipentsatzen jarri ezkerro, ez dago arrazoi naturalik euskara ofizialean H letra erabiltzeko; arrazoi kultural edo historikoak bai, egon litezke, baina arrazoi natural baliozkorik ez. Arrazoi naturala diodanean adierazi nahi dut gaurko hiztunaren hizkuntza naturalaren barrutian kabitzen den arrazoi klasea, eta alde horretatik esan beharra dago ia mundu guztiarentzat H letra mutua edo alferrikakoa dela, eta salbuespena direla ipar-ekialdeko zenbait eremutako hiztunak, haien hizkeran hasperena baitago, eta hura H-ren bidez adierazten baita. Eremuz eta hiztun kopuruz ordea, oso gutxiengo urri edo apurra dira hasperendunak, eta horrek ez luke eman behar biderik H bazter orotara zabaltzeko eta are gutxiago Batasunaren izenean. Eta hau dena diogu jakintzat emanik letrak, berez eta jatorriz, hotsen (teknikoki esanda, fonemen) zerbitzurako asmatu zirela eta ez beste ezertarako; kulturmunduan hori aspalditik ahaztutako gauza da ordea, eta idazten hasten diren umeak dira hori gogora dakarkigutenak.

Ez dakienik balego, hasperena deitzen den hori –H letrak adierazten duen edo adierazi behar lukeen hori– noizbait orokorra izan zen euskaraz: oso-oso noizbait, hobeki esanda, zeren joan deneko mende luzeetan mugaz iparraldean bakarrik gorde baita hots hori, eta han ere murriztuz joan baita denborarekin. Arrazoi edo desarrazoi kultural edo historiko horiengatik sartu zen H letra Euskara Batuaren ortografian orain mende erditsua, eta hautsak harrotu ziren, eta hautsak ez zirenak ere bai.

Iñaki Segurola (31 eskutik bloga)

ITZULPENAK KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Itzulpenak jatorrizko testuaren eduki bera izan beharko du ezinbestean, eta hizkuntzaren, estiloaren eta erregistroaren aldetik zuzena izan. Jatorrizko testuaren helburuari eta hartzaileari begira apailatu beharko da itzulpena, helburu eta hartzaile horiek berak aintzat harturik, eta haien araberrako terminologia, joskera eta esamolde egokiak baliatuz.

Itzuli beharreko testuaren erregistroari egokiro eutsi beharko zaio (lexiko kultura/literarioa, administrazioko fraseologia, erregistro jasoa...). Akastzat joko da, beraz, itzulpena itzulgaiarekin bat ez etortzea erregistroaz eta estiloaz den bezainbatean. Jatorrizko testuaren antolaketa orokorra (paragrafoak etab.) egoki igarorazi beharko da xede testura.

Testu bera itzultzeko hainbat modu egoki izan daitezke, noski. Hala ere, itzulpenak estilo koherentea izan behar du bere baitan.

Itzulpenak itzulgaiaren eduki berbera izan beharko du, eta, hortaz, akastzat joko dira:

- 1) Informazioa kentzea.
- 2) Informazioa eranstea.
- 3) Hitz, esamolde, perpaus edo ideia baten zentzua bestelakotzea.

Akats larritzat joko da itzulpena osorik ez egitea, ez bukatzea.

Itzulpenak xede hizkuntzaren morfologia, sintaxi, ortografia eta puntuazio arauak bete behar ditu. Euskarara itzultzean, Euskaltzaindiaren erabakiak aplikatu behar dira alor guztietan, eta lexikoan, jakina, *Euskaltzaindiaren hiztegia*-ri jarraitu. Gaztelaniaren kasuan, Espainiako Errege Akademiaren gramatika (*Nueva gramática de la lengua española*, 2009-2011) eta hiztegia (*Diccionario de la lengua española*, 2014) dira ardatzak. Morfologia, sintaxi, ortografia eta puntuazio gomendioen kasuan, koherentziaz jokatu beharko da idazki osoan.

Euskarara egindako bi itzulpenetan, bereziki larritzat joko dira honako hutsegite hauek: absolutiboa eta ergatiboa nahastea, deklinabideko akats funtzionalak eta formalak, mugagabearen arauak ez errespetatzea, aditzaren erregimenari loturiko akatsak (**mintzatu dut*) eta komunztaduraren alorreko hutsegiteak. Xede hizkuntza gaztelania denean, larriak dira tildeen erabilera okerra, ortografia desegokia (*h, b/v, c/k...*) eta adizki jokatuen arteko nahasmendua.

Gainera, itzulpen guztietan esaldiaren barruko hurrenkerak zuzena behar du izan, jatorrizko hizkuntzaren ordenaren mendera etorri gabe. Beraz, euskal perpausuan osagaiak ongi kokatu behar dira.

Jatorrizko testuaren kohesio maila zuzen igaro behar da itzulpenera, testu-antolatzaileak eta lokailuak artezki erabilia eta paragrafoak bata bestearekin ongi lotuta, besteak beste, anaforen bidez.

Puntuazio marka guztien erabilera zuzena izanen da. Behar adina ikur ipini behar dira bai esaldiak ongi egituratzeko bai anbiguitateak eta gaizki ulertzeak saihesteko.

Baliabide morfosintaktikoak egoki baliatu behar dira, eta jatorrizkoaren konplexutasunari eutsi behar zaio, emaitza sinpleagoa eman gabe.

Lexiko zehatza erabili behar da (adierazlea eta adierazia ongi lotuta), parepareko ordainak eman ez eta, komeni denean, aberastasuna erakutsiz; alegia, jatorrizkoan barrena sinonimoak agertzen direnean, xede testuan ere sinonimoak baliatu behar dira. Administrazioako bi itzulpenetan, terminologia administratiboa menderatu beharra dago.

Jatorrizko esapideen ordain gisa, esapide jator, doi eta adierazgarriak eman behar dira, kalkoetara jo gabe.